



## II. DEIADI ARTISTIKOA 2012

Arteak dimentsio artistikoa baino haratagoko prozesuak aktibatu ditzakeenaren ziurtasunarekin, gizartean eragina izan dezakeela, pertsonen ongizatean, taldeen garapenean lagundu dezakeela sinestuz, Museum Cemento Rezolak bere **bigarren deialdi artistikoa irekitzen du.**

Deialdi hau arte plastiko, eszeniko, dantza, literatura, ikus-entzunezko, argazkilaritza... esparruei irekia dago, eta ekimen artistikoak bultzatu nahian sortzen da. Dimentsio giza kulturala izango du, Añorga auzoarekin erlazio zuzena izango duelarik eta parte hartzea eta gizarte eraldaketa lagunduko dituen prozesu eta ekintzak izango dira.

### DEIALDIAREN HELBURUA:

Bigarren edizio hau jarraian agertzen diren helburuekin sortzen da:

- Sortzaileak (artista plastiko, ikus entzunezko, musikari, idazle...) eta talde/entitate kulturalak bultzatu euren proiektuen garapenean.
- Parte hartzaileen garapen pertsonala nahiz sortzailea hobetuko duten ekintzak eta auzoko taldeak eta komunitatea indartuko duten harreman prozesuak bultzatu.
- Museo bera sendotu eragile aktibo eta dinamizatzaile moduan.

### HARTZAILEAK:

Sortzaileak

Entitate artistikoak, kulturalak, irabazi asmorik gabekoak.

Bi kasuetan, beharrezkoa da normalean euren ekintza Euskal Herrian burutzea.

## **BALDINTZAK ETA PROIEKTUAREN IRIZPIDEAK:**

- Ekintza abenduaren 31 baino lehen hasi behar dute.
- Deialdira aurkezten diren proiektuak derrigor gizartearen parte hartzea kontutan hartuko duten ekintzak proposatuko dituzte.
- Proiektuak museoan gauzatuko dira edota auzoko beste lekuetan burutu ahal izango dira, kultur ekintzak burutzeko leku izan ohi diren ala ez. Kasu honetan museoarekin elkarlanean egingo dira beste espazioek beharko lituzketen akordioak.
- Proposatutako ekintzetan tratatuko den diziplinako profesionalak arituko dira, hala nola, helburu argi batzuk zehaztu.
- Aurkeztutako proposamenak komunitateri, pertsoneri, parte hartzaileei egingo dien mesedea zehaztuko du eta era berean Añorga auzoan izango duen ondorioa.
- Proiektu irabazleak proposatuko dituen ekintzak Museoarekin elkarlanean planifikatuko dira eta bere urteko programazioaren arabera, derrigor 2012ko abenduaren 31a baino lehen hasiz eta 2013ko urtarrilaren 31 baino lehen bukatuz.
- Aurkeztutako proiektua sozialki, ekonomikoki nahiz teknikoki bideragarria izan behar da.
- Museoak argitalpen eta erreproduzio eskubideak bere gain hartuko ditu bere promozioa egin ahal izateko. Aldi berean bere artxibokoak izatera pasako dira aurkeztutako proiektu guztiak.
- Aldi berean, aurkeztutako proiektuak erakusketetan erabili ahal izango dira, beti ere artistekin akordioetara iritsi ostean eta beti ere egiletza zehaztuz.
- Museoak eskubidea izango du deialdia esleitu gabe uzteko.

## **SORTZAILE EDO ENTITATEEN BETEBEHARRAK:**

### **Entitateen kasuan:**

- Deialdira aurkezterako garain, gutxienez urtebetez, bakoitzak dagokion erregistroan izena emanda egon beharko da.
- Beraien helburuen artean, deialdiaren helburuarekin erlazionaturik dagoen ekintza baten bat egin beharko dute.
- Proposatutako ekintzak programaren barne egongo dira, Museoarekin elkarlanean zaudetela zehaztuz.
- Ekintzaren aurre fasea garatzeko beharrezkoak diren egiturak izan behar dituzte.
- Betebehar fiskal eta laboralen jakinen gainean egotea.

### **Sortzaileen kasuan:**

- Ekintzaren aurre fasea garatzeko beharrezkoak diren egiturak izan behar dituzte.
- Proiektu soziokulturalen garapenean esperientzia izatea.

### **BALORAZIOA:**

Hurrengo iritzi hauen betetzea positiboki baloratuko da:

- Aurkeztutako proiektuaren presupuestoaren egokitzapena.
- Dagokion edozein diziplinaren profesionalaren parte hartzea.
- Oihartzun soziala eta parte hartzen duten pertsonen/taldeen onura.
- Proposamenaren zehaztasuna eta proiektuko diskurtsoaren koherentzia.
- Parte hartzaileen barne sartzeari ekintzaren prozesu sortzailean.

### **DEIALDIAREN ERABAKIA:**

Deialdi honetara zuzenduriko diru kantitatea 4500 eurokoa da gehienez, ondorengo eran banatuta:

**Soldata** kontzeptuan, artista/kolektiboak 2200 euro jasoko ditu, nahiz eta proiektu indibiduala edo kolektiboa izan. Zenbatekoa banku transferentziaren bitartez egingo da eta legalki araututa dagokion erretentzio fiskala egingo zaio.

**Produktzio Gastuen** kontzeptuan (materialaren erosketak, materialaren elaborazioa, trasladoak, dietak, ekintzaren garapenerako sortutako gastuak, hirugarrenengoi soldata) eta aukeratutako obraren zabaltzean 2300 euro zuzenduko dira gehienez.

(Kantitate hau gainditzen duten gastuak artistak ordaindu beharko ditu)

### **PROIEKTUEN AURKEZPENERAKO EPEA:**

2012ko azaroak 19 (19a barne), 14:00ak arte.

Deialdiaren emaitza pertsonalki parte hartze guztiei komunikatuko zaie 2012ko azaroak 23an.

## **EPAIMAHAIA:**

- Eneko Sierra, Añorgako Kultur Kirol Elkarteko lehendakaria
- Iñigo Royo /Marian Larzabal. OKUGRAF. Añorgatarrak ikus-entzunezkoaren egileak
- Donostia Kulturako ordezkari bat.
- Marta Font. K6 Gestión Cultural
- Amaia Llorente / Antonio Nolasco. Museum Cemento Rezola

Epaimahaiaren emaitza apelaezina da eta onartuko da gutxienez gehiengo sinple batengatik.

## **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:**

Dokumentazio guztia formatu elektronikoan bidali behar da:

Emaila: [museumcemento@k6gestioncultural.com](mailto:museumcemento@k6gestioncultural.com)

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Inskripzio orria beteta (oinarri hauen ondoan aurkituko duzu).
- Proiektuaren egile edo egileen curriculum vitae.
- Proiektuaren egile edo egileen NANaren fotokopia.
- Proiektuaren deskribapen kontzeptuala, proiektuaren izenburua barne, proposamenaren banakatzea eta egutegiaren aurreikuspena.
- Erabiliko diren materialen deskribapen zehatza eta proiektuaren behar teknikoak.
- Produkzio Gastuaren aurrekontu zehaztua.

Entitateen kasuan, aurkeztu behar dute ere:

Entitatearen dokumentazioa: CIF txartela, Estatutuak, dagokion erregistroan  
Entitatearen inskripzioa.

Entitatearen kontaktuzko pertsona eta NIF. Azken urteko Entitatearen memoria.

## **PARTE HARTZEA ETA EMATE LEKUA:**

Parte hartzeko korreo honetan atxikituta aurkituko duzun inskripzio orria bete eta eskatutako dokumentazioarekin email honetara bidali:

[museumcemento@k6gestioncultural.com](mailto:museumcemento@k6gestioncultural.com)

Eskaera zuzenean Museoan ere hartu daiteke.

MUSEUM CEMENTO REZOLA

Av. De Añorga, 36. CP 20018 Donostia- San Sebastián TI: 943 364 192